
Atzerritarrak, etxe berri bateko maskarak

Egilea: Kepa Zelaia

Claudia Madeiraren "Teorias do drama e do espectáculo" irakasgairako
idatzitako saiakera,

Lisboako Unibertsitate Berriko, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean

Kapituluak

- 1. Antzeztea, bizitza agertoki bezala**
- 2. Leku berri batera iristea**
- 3. Atzerritarrak**
- 4. Identitate hibridoak**
- 5. ERASMUS kasua**

1. Antzeztea, bizitza agertoki bezala

“Batzuetan bizitza eszena edo agertoki bat dela iruditzen zait, 24 ordutan beti zabalik dagoen agertoki bat, nahi dudanean sartzeko eta nahi dudanean ateratzeko. Egun batzuetan bizitzan sartu-sartu eginda nagoela sentitzen dut eta egun horietan asko inplikatzeko naiz aurkitzen ditudan pertsona guztiak, egiten ditudan gauza guztiak. Baina beste egun batzuetan bizitzatik urrun nagoela sentitzen dut, aparte, eta jendea ez dut serio hartzen, ez dut ezer egiteko gogorik izaten, ezerk ez duela merezi sentitzen dut. Oso arraroa naizela pentsatuko duzu!”. Pako Aristi idazlearen hitzak dira eta ez da zaila gutako askok identifikazio pixka bat sentitzea hitz horiekin. Nor ez da gertatzen denaren begirale sentitu, edo nork ez du bere burua galduta ikusi ekintzan, nork ez du erabili beharreko keinutan eta hitzetan pentsatu eszenaren aurretik, eta nork ez du antzeztu ez-antzezten saiatzearen, nori behartu diote agertokira ateratzera, nola behartu dute horretara, nork du nahiago bakarrik egotea, agertokian edo bertatik kanpo; baina norbait dabil guri begira ala gu gara gure buruari eta besteei hobeto begiratu behar diegunak?

XVII. mendean Roger de Piler kritikariak zioen “margolan bat teatro eszena bat bezala kontsideratu behar” zela, non figura bakoitzak bere eginkizuna betetzen zuen. Nobleak moztu egiten ziren munduaren aurrean modu horretan azaltzeko. Itxuraz alferrak ziruditen objektuetan egindako gastuak, aberastasuna estatus eta boterean bihurtzeko moduak ziren.

Pertsona guztiok daukagu eginda itun bat gizartearekin gure gu propioaren kreaziorako eta babeserako (Ernest Becker). Gutako bakoitza bizi den testuinguruan bere lekua aurkitzen saiatzen da, bere aukerek baldintzatuta eta bere itxaropenek gidatuta. Besteekin elkartzean, enkontru sozialean, kide bakoitza behaketa publikoan ikusgai jartzen da eta horrekin gehien behar duenaren balantza dator; horren arduratsu eraiki duen auto-balioeste positiboa.

Gure jokaera dugun aktitudearen ondorioa da, berau momentuan betetzen ari den funtzioarena eta baita egunerokoan aurkeztu garenaren arabera. Horren harira, psikologiak gure ekintza bakoitzarekin lortu nahi duguna argitu eta sailkatzeko lan egin du. Aktitude batek funtzio kognitiboa izan dezake, momentu horretan gure ikasketarako baliagarria dela uste dugulako egiten dugu; balio batzuk erakusten ere saiatu gaitzke, egunkari jakin bat besapean dugula paseatzen dugunean esaterako; doikuntza soziala bilatzeak ere aktitude bat ala bestea hartzeri garrantzia; baita gure egoa defendatzeak ere, gure izana kanpo erasoetatik babestu nahiak; edo sinpleki, aktitude jakin bat hartu dezakegu propina lortzeko, izan ere bezeroei irribarre egiteak funtzio utilitariora jarrai dezake soilik. Gure eguneroko jokaeraren arabera izango da gure kreazio pertsonala eta honek gizartean duen esposizioa.

Gure aktitudeen funtzioak ezagutzeko, lehenik aritu egin behar gara, jokoan parte hartu behar da. Beldur eszenikoa gure gizartean epidemian dagoen sentsazioa da. Erving Goffman-ek esan zuen norbanakoek beren errepresentazio idealizatuak erakustera jotzen dutela. Ez dugu garena erakutsi nahi publikoaren aurrean eta hori gu geu onartzen ez garen sintoma da, edo are okerrago, enkontru sozialak gure burua gehiago ezagutzen eta hobetzen lagunduko digun itxaropenik ez dugu. Lotsa sentsazioa eszenatokira igotzeko eskailerak non dauden ere ez dakiten horiengan soilik onartu daiteke edo denbora librean zentro komertzial baten paseatzen ematen dutenengan, adibidez. Konformismoa gure gizartean epidemian dagoen beste jarrera bat da. Aurrez aipatutako auto-balioeste positiboa, gizarteko joko-arauak eguneratzen gu ari garenean inpresioa eraikitzeko gai da. Bakoitzak bere astoari arre eta horrek guztiok norabide berdinean arraun egitea galarazten du.

Bizi garen gizarte honetan eguneroko errepresentazio kontuak lotuago daude botereari edo manipulazioari. Solaskideen portaera kontrolatzeak hobeto kokatuta eta segurtasun gehiagoz egotea ahalbidetzen digu. Errazagoa zaigu gure errepresentazio propioa erregulatzea.

Egoera kontrolatzen duen aktorearen posizio pribilegiatuak bi poloren arteko etengabeko balantzara darama, zinismoa eta zintzotasuna, erdiko puntu bat ere badagoelarik argitasunez jokatzeko duenarentzat. Inpresio faltsuak sor ditzakegu gezurra erabili gabe; intsinuazioak, anbiguetate kalkulatuak edo ez esatearen gezurrak bide hori erakusten digute. Hori bai, horretarako abila izan beharra dago. Gainera, Goffman-ek ziniko taldeak bereizten ditu eta horien arten "beraien iritziz talde baten errebindikazio justuak direnak sustatzeko mozorro baten azpian aurkezten direnak daude, istripuz edo bromaz ere mozorrotzen direnak ere badaude eta baita mozorrotuta irabazi pertsonala bilatzen dutenak".

Badago jendea uste duena zintzotasuna adierazita ez-zintzoa bihurtzen dela. Ekintza baten errepresentazioa ekintza berarengandik desberdintzen da eta, beraz, ezinbestean faltsutu egiten du. Nietzschek zioen subjektu oso gutxi "subjektu" bat zekusala.

Hala ere, Samuel Beckett-ek abisatu zuen maskara guztiak kenduta atzetik hutsa edo heriotza etorriko zela eta Oscar Wildek "eman maskara bat eta egia esango du" esan zuen. Maskara eguneroko laguna da eta artea egia bilatzen eta sakontzen laguntzen digun iturria da. Soilik eraikuntza baten barruan lortuko dugu barruren daukaguna ateratzea. Hamlet da horren adibide. Bera ekintzatik antzezpenera pasa zen. Bere eboluzioarekin atzeman dezakegu identitatea eta antzezpenera ez direla kontrakoak, eta are gehiago, joko horretan parte hartzen hasten garenean ekiten diogu gure identitatea ehuntzeari.

Historian zehar horren inguruan eztabaidatu bada ere, eztabaidatzen jarraituko dugu. Azken urteetan maskararen ideia aldatu egin da eta gezurrarekin lotu dugu. Ez dugu ahaztu behar “hypocrita”-k grekoz aktore esan nahi duela. Errepresentazio bakoitza anputazio bat bezala sentitzera ohitu gara, kentzen diguten zati bat bezala. Egiten dugunaren jakitun izan behar dugu, baina errepresentazio bakoitza ez da gezur bat, gure parte da eta ziurrenik ederrenetakoa.

2. Leku berri batera iristea

Orain dela zenbait mende pertsona baten perspektiba ez zihon 20 kilometrotik harago. Zorionekoak ziren zaldia zutenak, izan ere beraiek 60 kilometro ere egin zitzaizketen egun baten animalia bakarrarekin. Gero, Francisco de Tassis-ek (1459- 1517) posta zerbitzua asmatu zuen eta, horrekin, zaldia postutan aldatuz egun baten 200 kilometro ere egitea posible zen. Guri hegazkinean bidaiatzea tokatu zaigu eta zabaltzen zaigun perspektiba izugarria da. Leku berri batek jende berria eta eszenatoki berria esan nahi du.

Posizio aldaketa hori ez da zertan herrialde edo eskualde ezberdin baten eman behar. Eraikin berdinean mudatu dezakegu lekuz lanean mailaz igo edo jaitsi digutelako, edo gertaera batek egoera berrian jar gaitzake, izan gertuko pertsona baten heriotzak edo gure lehen poesia liburuaren argitalpenak. Hain zuzen ere, norbait gizartean posizioz aldatzen denean eta paper berri bati aurre egin behar dionean, ez zaio adierazten zertzelada guztiakin nola portatu behar den. Goffmanen ideiarekin jarraituz, eszenatoki berrian dagoen pertsonak aholku, sugestio eta zuzentarau gutxi batzuk jasotzen ditu, eta bere errepertorioan egoera berrira moldatzen lagunduko dioten errepresentazio pista ugari izango dituela onartzen da. Antzezleari eskatzen zaiona bere paperaren zati nahikoa ikastea da, egoera bakoitzean ahal bezala “inprobisatzeko” gai izan eta hobeto ala okerrago ateratzeko bertatik.

Momentu oro aprobetxatu daiteke ikasteko. Benetan gustuko dugun zerbait egiteari ekiten diogunean, are gehiago hori gure inguruan gauza ohikoa ez bada, egiteko horri eskuarki ezagutzen zaion prisma aldatzen saiatzen gara. Alabaina, aukera asko ditugu egiaztatzeko tinko ezarrita dauden zenbait ideien artean hautatu beharko dugula eta gure ideia berria ez da horren berria izango dokumentazio lan apur bat egin ostean. Oso fatalista dirudi, baina horrela ere ez dela esango dugu, bestela ez baitzen aurrerabidea existituko, Budak *Samsara*-n bizi ginela esan zigun arren. Prisma berrien bilaketa edo horien arteko konbinaketa egitea izan daiteke gure bizitzako zeregin interesgarriena eta pasio gehien jarriko dioguna, beste bidea *Nirvana* izango da.

Gure adimenak galbahe lana egiten du gauza batzuk sartu eta beste batzuk kanpoan uzteko. Esposizio selektiboaren bidez presente ditugun gauza guztietatik batzuk

besterik ez dizkigute arreta erakartzen; ondoren beste barrera bat igaro beharra du atentzioa deitu digunak, gugan interesa pizten jarraitu eta deszifratzen saiatu gaitzen; eta etorkizunean, soilik gauza batzuetaz gogoratzen den memoria selektiboaren azken barrerari aurre egin beharko dio.

Kanpora leku berri batera irtetea, selektiboagoak izateko aukera dugu. Hari gutxiagok lotzen gaituzte eta konpromiso eta presioak urrunago geratzen dira. Horrela gure nortasunarekin hobeto etorriko den errutina bat diseinatzeko aukera dugu, hori bai, ditugun aukeren barruan.

Aukera izugarria arrisku izugarria ere bihurtu daiteke, izan ere, kanpora irtetea goian aipatutako barrerak findu egiten dira. Hasieran dugun hutsune kognitiboaz gain, egoera berri baten ulertu eta egokitzen saiatzeak nekea eragiten digu, are gehiago hizkuntza berri batean ari bagara. Gu zerbaitekin pertsuadiatzen saiatzen direnean gauzak jasotzeko bi modu bereizten ditu psikologiak, adibidez, iragarki batekin. Bi modu horiek barruko eta kanpoko ibilbideak dira. Lehenengoa gure erabakia arrazoiari lotuago doanean eta jasotako informazioa aztertzen dugunean erabiltzen dugu, eta bigarrena lotuago dago inferentziaz hartutako edo sentimenduek gidatutako erabakiekin.

Juzku sozialaren teoriak dio edozein objektu soziali buruz egiten dugun juzkua prozesu afektibo eta kognitiboa dela aldi berean. Orduan, zein prismatik jasotzen ditugu gauzak leku berri batera iristean? Distantzia apur batekin begiratu eta inguruan duguna ezagutzea nahi dugu, ala korronteak eraman gaitzan uzten dugu esperientzia berri eta batu bat sentitzeko? Beltz eta zuriaren arteko bereizketa ere ezingo dugu egin, bestela seguruenik lehen esperientzia serioegia eta hotzegia litzateke, eta bigarrenean gure nortasunaz ahaztuko ginateke. Baliteke egun batzuetan bat eta besteetan bestea egitea, edo goiz eta gauaren artean nahasi ahal ditugu. Hori bai, gure eskutan geratzen da bi aktitudeen artean balantzea egitea.

Garrantzitsua da eszenatokian nola aurkezten garen jakitea. Diderotek azpimarratu zuen sentimenduek menperatzen dioten aktoreak arte pobrego bat sortuko duela sentimendu horiek lantzen dituenak baino. Honek errepresentazioaren eta mimesiaren arteko mugara garamatza. Nork ez ditu imitatu miresten ditugun idoloen edo pisukideek erabilitako esaldi eta posturak. Gurea denaren eta bestearena denaren arteko muga lausoa da. Fusio hori gizakiok dugun gauza onetako bat da, erlazioak ez baitira opakoak eta bata bestearengandik elikatu daitezke. Komunikatzeko edo jolasteko balio ahal digu, bizitzaren alde ederra dena, baina seriotasuna galtzeko eta gure nortasuna ahultzeko arriskua daukagu. Lur hartzen dugun testuinguru berrian, mimesiak jendearekin konektatzeko balio ahal digu, baina ez dugu ahaztu behar antzezten ere ari garela eta ez soilik imitatzen.

Gure tabula rasan, hasten ditugun erlazioek iragankorrak dirudite eta zaila da modu duin batean baloratzea. Gogoratu behar gara pertsonen besteekin harremanetan azaltzen dituzten aktituteak beti historikoki adierazleak direla, eta hartara, hasieratik errespetua eta umiltasuna izatea inbertsio ona izango da etorkizunerako. Horrek etxean jasotako lezio bat gogorarazten dit, zeinak akordarazten didan ahal dela ez direla inon atea betiko itxi behar.

3. Atzerritarrak

Lehen esan dut, guri hegazkinez bidaiatzea tokatu zaigu, baina ez dugu ahaztu behar jendeak pateran ibiltzeko txartela erosten duela. Garraiobideetan eta komunikazioan egondako aurrerapenak mundu globalizatu honetara ekarri gaituzte, non erraza den arraza eta kultura ezberdindun mundu txikiak aurkitzea. Ikastolako irakasle batek klase bakoitza mundu bat zela esaten zigun, eta garrantzitsuena, berau guk eraikitzen genuela. Mundua mundu bezala hartzen badugu esan dezakegu Portugalek kultura ezberdinak nahasteko instrumentu ederra duela: hizkuntza. Botere koloniala izan zenetik portugesa planetako txoko ezberdinetan barreiatuta dago.

Jendea batzen duten hizkuntzak, baina jatorri eta izate zeharo ezberdineko jendea. Cabo Verde nabigatzaile europarrek eta Afrika mendebaldeko esklaboek okupatu zuten lehenengoz. Gaur egun, artxipelagoak milioi erdi pertsona inguruko populazioa dauka. Bere historian zehar, Cabo Verde bere existentzia marjinalarengatik bereizia izan da. Irla horretako Antonio Carreira historiagileak kontatzen duen bezala, “denak irla hauetan bat egiten du gizakiari bizitza gogorra, zaila eta miserablea ezartzeko”. Zenbait idorte suntsitzailek gosetea eta heriotza eragin dute maila izugarri altuan. Baldintza horietan non herri bat besteren interesengatik munduko bazter batean ipinia izan zen, soluzioa bertatik kanpo bilatzen da. Migrazioa da Cabo Verderen aurrerapenerako faktore zentrala. Jatorrizko herrialdera bidalitako laguntza ekonomikoek honek aurrera egitea ahalbidetzen dute eta diasporan jasotako edukazioak etorkizuneko herritarrak indartzen ditu.


Cabo Verde hartu dugu paradigmatzat, baina ez ditugu ahaztu behar Portugalera hizkuntza berdinarekin Angolatik, Mozambiquetik edo Brasiletik datozenak, edo baita hizkuntza ezberdin batekin datozen txinatar, pakistandar edo tibetarrak, azken hauek Espainian baino azkarrago paperak lortzearen funtzio utilitarioari jarraituz. Brasileioren hizkuntza berdinarekin ezpainak nola mugitu erakusten diete portugaldarrei eta gainera samba eta bossa nova dakarte, horrek obra batean lan egitetik libratzen ez dituen arren. Esan beharra dago unibertsitate bateko garbitzaile gehienak edo Lisboako parke bateko lorezain gehienak azal beltza dutela.

Mundu guztian daude atzerritarrak eta pertsona batek bere etxea uzteko dituen arrazoiak ezberdinak dira leku bakoitzean. Latinoamerika ere mugimendu horien testigu da. Indigenak bere antzinako lurrekin eta komunitateekin lotu ohi ditugun arren, beraien zati handi batek hirira emigratu zuen eta bertan borrokatzen dute identitatea mantentzearen. Kasu honetan ere, migrazio motiboak behartuak dira, izan estatuaren unitate politika bat dela eta edo enpresa pribatuaren interesak. Populazio indigenaren erdia inguru, horien artean maputxeak, aimara edo guaraniak, hirietan bizi da egun. Pertsona horien gehiengoak ez du beraien jatorrizko unitatearekin lotura apurto eta bizitza urbanoari dagozkion eskaera, errebindikazio eta behar propioak dituzte, horietako asko diskriminazioari, ikusezintasunari eta periferiako bizi baldintza marjinali lotutakoak. Bere osotasunean, desenplegu indize altuagoak dituzte, irakaskuntza konbentzional gutxiago, justizia sistemarekin kontaktu negatibo gehiago eta ez-indigenek baino osasun egoera okerrago dute. Egun indigena ugari daude orain migratuz hiritara iristen eta bertaratzen ari direnak, eta ere berean beraien ama, aita, amama edo aitona mugitu zirenen ondoregoak daude. Hirian jaio dira eta beraien bizi testuingurua eta erlazio sozialena guztiz urbanoa da.

Mugimenduak ez dira beti behartuak eta globalizazio garai honetan jendeak alde batetik bestera erraztasunez bidaiatu dezake. Londresera asteburua pasatzera joan gaitzke hegaldi merke batekin. Turismo internazionala handitu egin da eta ekonomia globala bihurtu da, kausatua edo kausatuaz enpresa ugari filialak barreiatu izana munduan zehar. Klase ertaineko eta ertain-altuko jende ugari bere jatorrizko lekutik mugitzen da, batzuk hobeto etorriko zaien lana egiteko asmoz eta beste batzuk ez beharrezengatik, zerbaitek herrialde hartara joateko eskatu dielako baizik; izan abentura, ezagutzearen plazera, bidaiatzearena, jende berria ezagutzea, ikastea edo izan bere maitea bidaiatzea eskatzen diona.

Ikasleen truke-programen kasua saiakeran aurrerago hitz egingo dudana gaia da, baina interesgarria da ikuste nola ikasle belaunaldi batek gure etxea utzi eta leku guztiz ezberdin baten, edo zertxobait ezberdina behintzat, gure ikasketekin jarraitzeko aukera izan dugun. Askok ez dute aukera aprobetxatu, izan gaitasun faltagatik, gogo ezagatik edo modu honetako esperientziekin desadostasunagatik. Azken urteetan ohikoa bilakatu da eta gobernu eta enpresen partetik diru laguntzat eskaini dira, baina ikusi beharko da ikasle trukeak normaltasunez egiten jarraitzen diren egoera ekonomiko berri honetan. Laguntza ekonomikoak gutxitu egin dira, ikasleen etxeetan sartzen den dirua gutxitu den bezala. Zenbaitek uko egiten diote, batzuk estantzia laburtu dute, beste zenbaitek lana eta ikasketak bateratu behar izan dituzte. Diru-laguntzak kentzen badira, orduan baloratuko ditugu behar bezala galdutako aukerak.

Tolstoik esan zuen “arte batek bete behar duen misioa, hurkoarekiko senidetasun eta maitasun sentimendua, egun apenas gizarteko kide onenek lortu dutena, gizaki guztien sentimendu eta instintu bilakatzen ahalegintzea da”. Idazleak guztiok batzen gaituen espiritu unibertsalen bat zekusan, mundu guztiko atzerritarrek sentimendu berbera konpartitzen dutenean bezala. Sentimendu horietako batzuk dira batzuetan ezkutatu eta itzalean geratzen direnak, ez bada pertsona edo talde batek horiek ikusarazteko lana egiten duela. Hori da Migrantas asoziazioak egiten duena, Buenos Aireseko hiru emakumeren lana: “Migratzaileen esperientziak gainontzeko gizartearentzat ikusezin egoten dira. Guk migrazioaren, identitatearen eta elkarrizketa interkulturalaren inguruan lan egiten dugu. Herrialde berri bateko bizitzari buruzko hausnarketa eta sentimenduak espazio urbanoan ikusgarri egitea proposatzen dugu gure proiektuen bidez”. Etorkinekin biltzen dira beraien esperientziez hitz egiteko eta ondoren irudi bihurtuko diren ideiak ateratzeko. Konstruktiboa litzateke autobus geltokietako publizitate poste eta kristalak modu honetako ilustrazioak jartzeko erabiltzea.



4. Identitate hibridoak

John Fowlesek hitz hauekin abiatzen du bere erromantze bat: “... *gizakiok ez ditugu gauzak bere osotasunean ulertzen; gu ez gara jainkoak, baina bai izaki zaurituak, lente arraiadunak, pertzepzio zatikatutarako kapazak soilik. Izaki partzialak, hitzaren onarpen osoan. Gauzen zentzua eraikin hauskorra da trapu, dogma, haurtzaroko sufrimendu, egunkariko artikulu, ustekabeko behaketa, antzinako pelikula, garaipen txiki, gorrotatutako pertsona, maitatutako pertsonak osatuta; agian hori gertatzen zaigu benetan garrantzitsutzat dugunaren ustea material ezegokitarra lerratzen delako eta hori estu defendatzen dugulako, heriotza arte.*”

Iritsi garen testuinguru honetan sortzen dira identitate hibridoak, Ulrich Beck soziologo alemanak ederki definitu zuena “aldi berean hegoak eta erroak” edukitzea bezala. Hau da, Lisboan bizi den emakume caboverdetarrak bere identitatea zatituta edukiko du zenaren, orain denaren eta izan nahiko duenaren artean, eta hori bi leku eta egoera guztiz ezberdinetan eraman beharra dauka. Bizitza parte hartzen dugun eraikuntzak

badira, bere identitatea gauza gutxitan berdinak diren bi eremutan moldatu behar da, eta honenbestez, guzti horren nahasketa hibrido bat izango da.

Zygmunt Bauman bezalako autoreen ustez, mugak handitu egin dira desagertu ordez. Mundu selektibo kosmopolitak duen izaera selektiboak, askotan aurkitzen diren tokiari ematen zaion garrantzi ezan bihurtzen bada ere, atzerritar izateko modu ezberdin batera garamatza eta honek dudan jartzen du identitate hibridoak existitzen diren ala ez.

Modelo kosmopolita ezin da mundu guztian barreiatu edo konpartitu, ez zen izan egin masen imitaziorako eta kosmopolitak ez dira bizimodu berri eta hobe baten apostoluak. Baumanekin jarraituz, bere premisa da ez duela axola non gauden, axola duena gu bertan gaudela da. Ezin da esan kosmopolita berrien bidaiak deskubrimendurako bidaiak direnik. Mesmicea, portugaldarrez betikoa egitea, da ezaugarri nagusia. Postura hau gehien defendatzen duenatarikoa da Jonathan Friedman antropologoa. Bere ustez, hibridismoa ideologia nagusian ematen diren transformazio handiagoen emaitza da, ere berean komunikabideak erakartzen dituen intelektualez osatutako elite kosmopolita berri bati lotuta dagoelarik. Aipatutako autoreek diaspora eta hibridazioa bizitzeko diferentzia nabarmenak bereizten dituzte kolonizatzaile ohiaren perspektibatik, hau da, norbere borondateagatik egitearen eta kolonizatu ohiaren perspektibatik egitearen artean, azken hau sistema mundialaren ezberdintasunen ondorioz inposatutako prozesu migratzaile baten fruitu bezala.

Azken postura hau kritikatu ere izan da kulturen artean pasatzen diren transformazio sozialak eta kulturalak sakonean kontuan hartzen ez dituen irakurketa bat delako, eta baita mugaren ideia lurralde-mugarri bezala hartzen duelako eta ez enkontru leku bezala.

Bi bideak zertxobait gerturatzen direla dirudi Pnina Werbnerrek kosmopolita eta transnasionalean artean egindako proposamenarekin. Lehenak "gourmet dastatzaile" gisa ikusi daitezke, kultura globalen artean bidaiatzen duten tximeletak, diferentzia kulturalak probatuz. Bigarrenak, mota sozialari dagokionez, erlauntzak lur ezezagunean eraikitzen dituzten erleen eta inurrien itxura gehiago dute, normalean kantitate handitan mugitzen diren pertsonak direlarik, bere inguruan "etxe" kolektiboak hazteko. Biak ala biak hibrido kulturalak dira.

5. ERASMUS kasua

Identitate hibridoaren ideiarekin jarraituz, ikasle trukeen gaiari buruz hitz egingo genuela esan dut lehen eta horri buruz zenbait zertzelada esan ditut. 3 milioi ikasle inguruk parte hartu dute jada Erasmus programan, Europako Goi Irakaskuntzako 4.000 institutu baino gehiagotan. Beste askok berdina egin dute Latinoamerika, Ipar Amerika

edo planetako beste puntu batzuetara bideratutako programak aprobetxatuz. Hiri berri batera iristea ilusioaren sinonimoa da, baita mugitzeko gogoarena, eta saudade pixka batena, orientazio falta dugu aldi berean, eta horregatik bilatzen dugu kokatzea egonkortasuna edukitzeko.

Bilaketa hori gure kabuz egin dezakegu, baina gai ez dela uste duenarentzat, gogorik ez duenarentzat edo bururatzen ez zaionarentzat, lurreratzean laguntzen duten hainbat organizazio daude. Horietako bat Erasmus Student Network (ESN) da, 1989an sortua eta Europako erakunde handiena dena. Oso litekeena da norako berri batera iristen diren ikasle gehienak noizbait bere bulegoetatik pasatzea, izan "erasmus"-entzako eskaintzak dituzten mugikorren txartelak eskuratzeko edo alokairuan dauden apartamentuen kontaktuak lortzeko. "Survival Guide" bat ere badute, non bertan aurkitzen den "everything you need to know about being Erasmus in Portugal". Bere web orrialdean diotenez, ESN-k unibertsitatera truke programarekin datozen ikasleentzat laguntza, gidaritza eta informazio orokorra eskaintzen du. Horrela, iritsi berriak errazago aurkituko bere bidea giro berrian eta denbora ahal den ondoen erabiliko du trukea ahal den gehien aprobetxatzeko. ESN-koek ematen dituzten zenbait datu behatuko ditugu, ikasleei aurkezten diguten eszenatokia zein den zehazteko.

Aurkezpen liburuxkak letra lodiz azaltzen digu trukearen esperientziak duen garrantzia: *"It complements the academic knowledge gained with opportunities for personal development and helps students to acquire skills needed for today's job market"*. Garapen pertsonala eta merkatu laboralerako ikasketa, ezer kulturei, jendeari edo sukaldeko merkatuko ikasketei buruz. Ez dugu kritikatu asoziazioa inportantzia gehiegi izan ez dezakeen esaldi batengatik, baina ESN-ko ikasle txartelarekin jarraituko dugu. Txartel horren bidez bidaia, kirol edo festa gisako "erasmus" ekintzetan eskaintza, deskontu eta erraztasunak lortu ahalko dira. Etiketa jartzen duen txartela, ikasleak ekintza mota jakin batera bideratzen dituena eta trukean zehar berdinen artean berriz nahastera bultzatzen gaituena. Txileko Santiagon, asteazkenero antzerako erakunde batek festak antolatzen ditu leku ezberdinetan. Txartela duten ikasle atzerritarrek ez dute sarrerarik ordaintzen eta txiletarrek, ezin dutenak txartela eduki jakina, 12 euro balio dituen sarrera arrunta ordaindu behar dute. Beste gauza interesgarri bat, pertsonalki dezente nahigabetzen nauena, baina festetako kontu ohikoa dena, honakoa da: "emakumeak debalde sar daitezke gau osoan eta gizon atzerritarrak ere debalde gauerdiko 12ak baino lehen".

Guzti hori "Erasmus experience" jatorrizko deituraren pean, soilik behin gertatzen den esperientzia eta bertan festaren, orgasmusaren, ikasketaren eta jendearekin konpartitzearen protagonista gara. Esperientzia berdingabearen sentsazioa sorrarazten digute eta horretarako beharrezkoa da kontuak puztea.

"The Biggest Exchange Party in Chile" deitzen zen aurrez aipatutako asteazkenetako festa. ESN Lisboaren web orrialdean sartuz gero, gabon hauetarako eskaintza bezala

hainbat perla aurkitu ditzakegu. Harrigarriena, egia esan harritu egin baitu horren harrigarri izateko saiakerak, "MEGA ERASMUS X-MAS PARTY BY ESN EN LISBOA" da. Begiak ireki behar dira, izan ere "THE BIGGEST XMAS PARTY OF YOUR LIFES IS COMING" eta gainera "A MAIOR FESTA DE NATAL DE NOSSA VIDA" izango da. Letra larriak ez ditut nik jarri. Musika ona, giro ona eta jende onaren inguruan posible izango da "have a lot of fun" eta horretarako gurekin egongo dira Santa Claus, Santa Elf eta Santa Girls! Guztia klimaxaren puntan, zoramarenarenean eta ondo pasatzearenean. Hori bai, janzkera Casual Chic izan beharko eta mutilak ezin izango dute flip flopsekin jantzita joan.

Gauzak aurkeztean gehitzen dizkieten dramatizazio eta gehiegikeriak ez dute laguntzen gure esperientziaren hausnarketa kontziente bat egiterako orduan. Aurretik esan dugu leku ezezagun batean hautematearen barrerak askoz finagoak direla, eta modu honetako ekintzek sentimenduei jarraitu eta soilik gozatzeraz gidatzen gaituzte. Gu protagonistak garen eta bertan murgilduta gauden eszenatokia ipintzen zaigu. Ez diot gozatzea txarra denik, baina nolako esperientzia bizi nahi dugu kanpora irtetean? Friedmanek komentatutako elite kosmopolita izan nahi dugu, leku ezberdinen gourmet dastatzaileak, gainera esperientziaz betetako motxila duten mundudun pertsonak uste direnak?

Kontua motxila zerrekin betetzen dugun da. Aurreko bi ideia gogoratuko ditugu, non baten Dideroten ahotik genion sentimenduek menperatzen dioten aktoreak arte pobreago bat sortuko duela sentimendu horiek lantzen dituenak baino, eta bestea pertsonak besteekin harremanetan azaltzen dituzten aktitudeak beti historikoki adierazleak direla zioena.

Betikoa egitea saihesten saiatu behar gara, ez egiten besteak egiten dutena inertziaz, eta belaunaldi bakoitza aurrekoaren ukazioa bada, gure bide propioa bilatu benetan nahi duguna aurkitzeko. Mimesia ere zaindu beharra dugu, besteak imitatzea ez baita izan behar nire nortasunaren galera, bion arteko erlazioaren errefortzu bat baizik.

Bertolt Brechtek gauzen perspektiba hobea edukitzeko distantzia hartu beharrez garrantziaz hitz egin zuen. Eszenatokian dugun paperaz hausnartzea, funtsezkoa da toki berri bateko gure esperientzia hobetzeko eta baita besteen begietan gure burua hobeto ezagutzeko. Distantziaren joko horrekin beti pertsonaietan eta egoeratan burdinduta egongo bagina baino perspektiba gehiago irabaziko dugu. Hori guk egin beharreko esfortzu bat da, ikusi baitugu nolakoa den aurkezten zaigun eszenatokia, eta ez du Brechtek zuzentzen.

Bibliografia

- “Drama e comunicação”, Paulo Filipe Monteiro
- “Híbrido, do mito ao paradigma invasor”, Cláudia Madeira
- Informe de Comisión Asesora, Propuesta para la Generación Participativa de una Política Indígena Urbana, Chile 2006
- “Emigration, Return and Development in Cape Verde” artikulua, Jorgen Carling
- Joxerra Garziaren “Pertsuasio estrategiak” ikasgaiko apunteak.
- *Associação Migrantas*-en web orrialdea.
- *Erasmus Student Network*-en web orrialdea.